




Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**ELIZA,  
JESUSEN  
FAMILIA**

**C SAIOA  
ETXEAN, FAMILIA EGOTEKO**

**Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik"**  
**(Eg 2, 42)**

## **1. Helburua**

- Eliza Jesusen jarraitzaileen elkartetzat aitortu.

## **2. Helburu bereziak**

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.
- Eliza Jesusen adiskideen, jarraitzaileen familia bezala ikusi.

## **3. Saioak**

- C saioa, etxean, familian egiteko.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.



# C SAIOA ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO



## Motibazioa

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.



## Azpimarrak

- Eliza gara, Jesusen jarraitzaile garelako.
- Guztiok batera Jainkoaren familia osatzen dugula konturatu.



## Idea nagusiak

- "Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik" (Eg 2, 42-47) pasartea da saioko ardatza.
- Eliza osatzen dugun guztiok, Jesusen familia gara.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

"Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik"

Eg 2, 42



"Tu primera Biblia", Edebé. pag. 461


### Bideoa

#### Entzuteko, klik egin irudian



"Somos un pueblo de muchos colores"


### Jarduera



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Sinboloak: kandela, gurutzaren seinalea eta otoitz laburra

- o Zer ikasi dugu gaur etxean?
- o Nola sentitu gara?



## Saiorako gida

Familiarentzat...



### Lehen unea

#### Argibideak etxean elkarrizketan jarduteko

- Hasieran, guraso eta hurrek parrokian egin duguna batera jar dezakegu. Nola sentitu gara? Zer gertatu zaigu gustuko? Zer ez zaigu gustatu? Zer da zailena?

Ondoren, jarduera hau egin:

- Hurrek parrokian ikusitakoa gogoratzuz, hizki-zopa egiten lagunduko diegu (l. eranskina).




### Bigarren unea. Etxean egin eta katekesiko hurrengo saiora eramateko ariketa.

- *“Nire parrokia”. Mutiko eta neskatoek, ama eta aitek gogoeta egingo dute beren parrokiaren inguruan: nolakoa da, nor dago, zer egiten da...*

Horren inguruan pentsatu ondoren, beste honetan pentsatuko dute: Zer izan beharko luke parrokiak beren familiazat hartzeko? Zer botatzen dut faltan? Zertan lagun dezakegu hori hobetzeko?

Elkarrekin hausnartu ondoren, parrokiaren marrazkia egin dezatela, gustuko duten guztia eta gauzak hobetzeko egingo luketena gehituz.



¿Cómo es mi parroquia "ideal"?



### Hirugarren unea. Otoitzaldia familian.

- **“Egunean zehar, zein unetan gauden denok ikusi eta orduan bildu”**. Ez da erraza izaten, baina seguru aurkituko duguna, egunean... edo astean, 10-15 minutuko tartea elkartu eta otoitz egiteko.
- **“Musika apur bat”**. Itzali etxeko tramankulu zaratatsu guztiak eta lasaitzen, abiadura moteltzen lagunduko digun musika jarri.
- **“Isilunea”**. Etxea isilik, zaratarik gabe dugula, isiltasuna ‘entzuteko’, dena itzalita dagoenean zer entzuten den jakiteko, aukera izango dugu.
- **“Geure buruaren barrualdera begiratu”**. Geure burua aztertuko dugu nola sentitzen garen ikusteko: alai, triste, baikor, ezkor, amorratuta, sututa, esker oneko... eta besteen aurrean batera jarriko dugu.
- **“Zerrenda eta eginkizuna”**. Familiako kide bakoitzak bere buruarengan eta familiako beste kide batengan antzemandako bi talentu edo gaitasun nabarmenduko ditu eta, gero, batera jarri. Guztion artean, elkarrekin, familia bezala egin dezakegun konpromisoren bat hartuko dugu, horrela, gure talentuen bitartez, gure inguruan, gure artean, senidetasuna haz dadin.

- **“Jainkoari kontatuko diogu”**. Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari egunean zehar bizi izandako sentimendu positibo eta gauza onengatik. Eta laguntza eskatuko diogu, gure talentuak besteen esanetara jar ditzagun.
- **“Arnasa hartu”**. Berriz ere, isiltasuna “entzun” egingo dugu. Une batez arnasa patxadaz hartu eta, ondoren, ohiko gauzetara itzuliko gara.

Gure denbora husteak, geldiunea egin eta pentsatzeak, geure barrualdera begiratzeak, une batez Jainkoarengan pentsatzeko aukera ematen digu. Eta harrigarria da, Nazareteko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, egunerokoa, beti desberdina dela egiaztatzea. Kandela piztuko dugu Jesus gure artean dela adierazteko.

Aho batez, Aitagurea errezatuko dugu:

*Gure Aita, zeruetan zarana:  
santu izan bedi zure izena,  
etor bedi zure erreinua,  
egin bedi zure nahia  
zeruan bezala lurrean ere.*


*Emaguzu gaur egun honetako ogia;  
barkatu gure zorrak,  
geuk ere geure zordunei  
parkatzen deutsegun ezkerro,  
ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,  
baina atera gagizuz gatxetik.  
Amen*

Amaitzeko, “Somos un pueblo de muchos colores” abestia entzungo dugu

**Ikusteko,  
klik egin irudian**



I. ERANSKINA



1 7 5 4 3 den

Jainkoaren

6 1 2 2 5 3